

EROSKI-K BESTE SUPERMERKATU BAT INAUGURATUKO DU LASESARRE KALEAN, BARAKALDON

- **Saltoki berriak elikagai freskoetan espezialista den gama bat eskaintzen du, eta tokiko produktuen alde egiten du**
- **1.083 metro koadroko salmenta areto bat du, eta 38 langile**

Barakaldo, 2021eko apirilaren 29a.- [EROSKI](#)k supermerkatu bat ireki du Lasesarre kaleko 12-14 zenbakien artean, Barakaldon, lehen Anaconda dantzaleku ospetsua izaten zen lekuan. Denda berriak EROSKI/City du izena, eta 1.083 metro koadroko salmenta aretoa du. 38 langile ditu, formakuntza jaso dutenak freskoen atalean espezializatzeko eta bezeroei arretarik onena eta erantzunak eskaintzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarriak behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta EAEn 848.000 bazkide inguru ditu; gainera, oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere.

Tokian tokiko produktuek garrantzi handia

"Produktu freskoen eta tokian tokikoaren alde egiten jarraitzen dugu. Ez da bakarrik gure izaeraren ikurra, baizik eta baita herritarren eskakizun gero eta zabalago bat ere COVID-19aren garaiotan", esan du EROSKI iparraldean dituen supermerkatuetako zuzendariak, Ismene Fulgenciok. Eskualdeko 9.000 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta horiek erosteko 740 milioi eurotik gora erabiltzen ditu urtero.

Produktu dietetikoek eta biologikoek ere beren tokia dute supermerkatu berrian, elikagai joera berri guztiak biltzen dituzten guneeekin. Gainera, atal horretan, produktu espezifikoko sorta zabal bat dago, elikagai intolerantziak dituztenentzat (glutena, laktosa...) eta gantz, azukre eta gatz gutxi jan behar dutenentzat. Horretaz gainera, lurrindegiko-parafarmaziaren atal zabal bat du, eta prestakuntza berezia duen langilea edukiko du bezeroari zainketa pertsonalerako arreta osoa eskaintzeko.

Eraginkorragoa eta iraunkorragoa

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Era berean, saltokia iraunkorragoa da ingurumen aldetik; izan ere, kontsumitzen duen energia %60 gutxitzen du supermerkatu konbentzional baten aldean, eta eraginkortasun eta ingurumen iraunkortasun baldintza zorrotzak betetzen ditu; horrek indartu egiten du EROSKI taldeak ingurumenarekin eta gizarte ongizatearekin duen konpromisoa. Hotz industrialean aplikatzen duen berrikuntza teknologikoari esker, eraikinak gutxiago kontsumitzen du. Gainera, argiterian LED teknologia darabil; horri esker, argiztapena homogenea da eta ikusmenarentzat oso eroso, eta ingurumen arriskua eta kontsumoa gutxitzen ditu.

Janari banatzaileetan lehena EAEn

EROSKI da liderra EAeko elikagaien banaketan. 406 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu hipermerkatuak, supermerkatuak, gasolindegia, optikak, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak, baita [online](#) supermerkatua ere. Gainera, sei plataforma logistiko ditu, guztira 118.000 metro koadroko azalera hartzen dutenak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)